

Zangoza / 2021

KULTUR AGENDA

apirila



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Kultura-zerbitzuko Arreta Ordutegia: Astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea www.sanguesa.es web-orrian kontsultatu.

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: apirilaren 6tik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Tfnoa: 948 870 251

Salmenta txartel-leihatilan antzeppen egunetan: Karmengo Entzunaretoako txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), 18:00etatik 18:30era helduen saioetarako eta 17:00etatik 17:30era haur eta sendienetarako.

Tfnoa: 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 4koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.



Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA



Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi

entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatirik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora.

Covid19 dela kausa, Zangozako Udalak Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean eta Karmengo Entzunaretoan beharrezko neurriak ezarri ditu. Kontsulta ditzakezu www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web guneetan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.



- 1** Og Erakusketa "Nafarroa Ezagutu XIII Argazki-Lehiaketa" (apirilaren 11 bitarte) 4. Orr.
Erakusketa "Adaptazioa: klima-aldaketaren aurkako beste borroka" (apirilaren 11 bitarte) 5. Orr.
IV. 2.0 Ager Vasconum Literatura-Lehiaketa (apirilaren 30a bitarte) 12. Orr.
Albreteko Enrique XXVI. Ikerkuntza-Lehiaketa (ekainaren 30a bitarte) 12. Orr.
- 2** Os
3 La
4 Ig
-
- 5** Al
6 As Aste Santuko Futbol Campusa (apirilaren 9 bitarte) 12. Orr.
7 Az
8 Og
9 Os Keinu-antzerkia. "DEMO. Elegía del momento" 6. Orr.
10 La
11 Ig
-
- 12** Al
13 As
14 Az
15 Og Erakusketa "Pigmento y agua" (maiaren 2 bitarte) 4. Orr.
Hitzaldiak "Mintza gaitetzen doluaz" 9. Orr.
16 Os
17 La Dantza. "Re-des" 7. Orr.
18 Ig
-
- 19** Al
20 As Liburuaren Eguna ospatzea. I. Tailerra 11. Orr.
21 Az Liburuaren Eguna ospatzea. II. Tailerra 11. Orr.
22 Og Hitzaldiak "Mintza gaitetzen suizidioaz eta pertsona maite baten suizidioaren ondotik bizirik dirautenez" 9. Orr.
23 Os
24 La Antzerkia. "El viento es salvaje" 8. Orr.
25 Ig
-
- 26** Al
27 As Kontzertua. Musika Eskolako ikasleak 11. Orr.
28 Az
29 Og Hitzaldiak "Mintza gaitetzen eutanasiaz eta lagundutako" 10. Orr.
30 Os

Erakusketak



"Aspas y estrellas". José Antonio Barros.



"Roble de Orkin". Pablo García Osés.



NAFARROA EZAGUTU XIII. ARGAZKI-LEHIAKETA. 2020KO FINALISTAK

APIRILAREN 11 BITARTE

Conocer Navarra aldizkariak bere argazki-lehiaketaren 30 irudi finalistak aurkezten ditu. Gure herriarekin maitemintzeko hogeita hamar argazki: gure jaien eta tradizioen onenarekin, gure ondarearekin eta noski, gure paisaiekin.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzaileak: Conocer Navarra eta Diario de Navarra.

Babeslea: Eroski.

Laguntzaileak: Camera, Reyno Gourmet eta Nafarroako Kanpinen Elkarte.

"PIGMENTO Y AGUA"

JOSÉ M^a ARRIAZU. Urmargoak

APIRILAREN 15ETIK MAIATZAREN 2RA

"Nire lehen urmargo erakusketa ikasturte amaierako lan gisa aurkezten dut, adiskideen argazkietan (eskerrak eman nahi dizkiet hain eskuzabalak izateagatik) eta nire argazki batzuetan oinarrituriko lana. Ikasturtearen amaiera esaten dudanean, sentsazio edo sentimenduen lanak baino gehiago, izaera akademikoko lanak direlako, oso pentsatuak eta ikasiak, marrazki nabarmenarekin, kolore errealistarekin, konposizioarekin, enkoadraketarekin...

Akademikotzat jotzen dut urmargo teknikaren tratamenduagatik (praktikarekin aplikatzeko eta ikuspuntuak adierazteko modu berriak lortzen dira); izan ere, zaila dirudien arren, haren mundua ezagutzen duzunean, liluragarria, emankorra eta aurretik ikusi ezina baita. Autodidakta naizelakoan nago, baina maisu handiak eta irakasle eta lagunen aholkuak ahazteke, eta, denborarekin eta esfortzarekin, ikasten jarraituko dut, nire ibilbide artistiko ilusionatuan autoritatez, konfiantzaz eta askatasunez adierazi ahal izan arte". José M^a Arriazu.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Beheko Solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.


Erakusketak

EXPOSICIÓN ERAKUSKETA

La otra lucha contra el cambio climático


ADAPTACIÓN HOLDAERA


Klima-aldaketaren aurkako beste borroka



LUGAR/TOKIA

FECHA/DATAK





“ADAPTAZIOA: KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BESTE BORROKA”

APIRILAREN 1ETIK 11RA

Erakusketak klima-aldaketara egokitzeari heltzen dio, Nafarroako egoera laburbiltzen du eta gure lurraldeko klima-aldaketaren problematikari aurre egiteko hartutako zenbait neurri nabarmentzen ditu.

Klima-aldaketara egokitzeko Europako LIFE-Nadapta proiektuaren esparruan egin da erakustaldia, eta LIFE SHARA (OECC, Biodibertsitate Fundazioa, CENEAM eta Klima Aldaketaren Portugalgo Bulegoa) proiektuko materialak Nafarroara egokitu dira.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxekeo bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Antolatzaileak: Nafarroako Gobernua, KLIN (Nafarroako klima-aldaketari buruzko ibilbide-orria).

Laguntzailea: Kultura Batzordea, Zangozako Udaleko Gizarte Gaien, Osasungintzaren eta Ingurumenaren Batzordea.

Erakusketa Aretoko

bisita-ordutegia: Asteartik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak

Karmengo entzunaretoa



KEINU-ANTZERKIA, MASKARAK "DEMO. Elegía del momento"

THE NOSE THEATER

OSTIRALEAN, APIRILAK 9

Zuzendariak: Chema Caballero eta Ángela Bodega.

Antzezleak: Ángela Bodega, Almudena Ballesteros, Beatriz Caballero, Laura Cortés eta Chema Caballero.

Aurrekaririk gabeko iraultza teknologiko batean murgilduta dagoen edozein familiaren istorioa da hau. Telebistak, ordenagailuak, mugikorak, patinete elektrikoak, bideo-konsolak eta itxuraz kaltegabeak diren objektuak agertzeak haien harremanetarako modua gero eta hotzagoa eta indibidualizatuagoa bihurtzea eragiten du. Sendi baten sorreraren gaineko istorio bat, neskak mutila ezagutzen duen unetik, eta nola inguruko elementu teknologikoek haren banaketa eragin dezaketen.

Familientzat (7 urtetik gorako haurrak).

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak

Karmengo entzunaretoan

DNA'21

Danza Contemporánea
de Navarra

Nafarroako
Dantza Garaikidea



DANTZA. DNA2021 JAIALDIA "Re-des"

DanzAI

LARUNBATEAN, APIRILAK 17

Zuzenaria: Andrea Irurzun.

Antzezleak: Andrea Irurzun eta Iria Lumbreras.

Zurrunbiloan murgilduta dagoen jendarte honetan, aurrerapen teknologikoez pertsonen arteko konexio-sare ikusezina ahalbidetu dute. Sare horrek inoiz egon ez garen lekuetara bidaiarazten gaitu, urruti ditugun pertsonekin konektatzen gaitu, baita ezagutzen ez ditugunekin ere, eta munduari hitzen beharrik gabe zein egoeratan aurkeztu aukeratzeko aukera ematen digu. Beste dimentsio baten aurrean gaudela esan dezakegu, herri atsotitzarekin deskriba daitekeena: irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 19:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 6 €.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.

Emanaldiaren **amaieran konpainiarekiko solasaldi batera** joan nahi baduzu, bidaliezaguzu mezu elektronikoa bat infocultura@sanguesa.es helbidera, deitu 948 870 251 telefonora edo hurbildu Kultura-etxera asteartetik ostiralera 12etatik 14etara edo 19etatik 21etara. Toki mugatuak.

Arte eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



ANTZERKIA. Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua

"El viento es salvaje"

LAS NIÑAS DE CÁDIZ

LARUNBATEAN, APIRILAK 24

Zuzendariak: Ana López Segovia, José Troncoso.

Antzezleak: Alejandra López, Teresa Quintero, Rocío Segovia, Ana López Segovia.

Las niñas de Cádiz konpainiak "El viento es salvaje" bere azken ikuskizunera hurbilduko gaitu, 2020ko ezusteko ikuskizun onenari Max Saria. Zoriaren, patuaren, hautamenaren eta erruaren inguruko hausnarketa ludiko eta "jonda" bat da. Algarak muturretik muturrera zeharkatutako tragedia, Las niñas de Cadizen ikuskizun guztietan bezalaxe. Izan ere, istorio izugarri orotan bada paradoxa bat komediara eraman dezakeena; eta alderantziz, umore-abiatze orotan, badago beti hondo tragiko bat.

Ikusleak: Gazteak eta heduak.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 19:00.

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea.

Babeslea: Nafarroako Gobernua.

Emanaldiaren **amaieran konpainiarekiko solasaldi batera** joan nahi baduzu, bidal diezaguzu mezu elektronikoa bat infocultura@sanguesa.es helbidera, deitu 948 870 251 telefonora edo hurbildu Kultura-etxera asteartetik ostiralera 12etatik 14etara edo 19etatik 21etara. Toki mugatuak.



CIRCUITO DE ARTES
ESCÉNICAS DE
NAVARRA

NAFARROAKO
ARTE ESZENIKOEN
ZIRKUITUA

Hitzaldiak

“MINTZA GAITEZEN... HERIOTZAZ” ZIKLOA



“Mintza gaitezen doluaz”

OSTEGUNEAN, APIRILAK 15

Dolua maite duzun pertsona bat galtzean sentitzen duzun mina da, erantzun naturala, normala eta adaptatiboa da. Gure bizitzako uneren batean guztiok aurre egin behar diogun bizi-esperientzia bat da. Gainera, egoera estresagarria da, gure niaren alde guztiei eragiten diena.

Hizlaria: Sara Pérez Pizarro, Goizargi Elkarteko Psikologoa.

Ordua: 19:30.



“Mintza gaitezen suizidioaz eta pertsona maite baten suizidioaren ondotik bizirik dirautenez”

OSTEGUNEAN, APIRILAK 22

Besarkada-Abrazo Elkartea suizidioagatik maite zuten pertsona bat galdu dutenek osatu dute, gizartea ere prest ez dagoen dolu bakarti bati aurre egin behar izan diotenak. Haientzat presarik gabeko besarkada sakon eta isil bat lagunik onena da.

Hizlaria: Elena Aisa, Besarkada-Abrazo Elkarteko Lehendakaria eta suizidioaren ondotik bizirik dirauena.

Ordua: 19:30.

Hitzaldiak



“Mintza gaitezen eutanasiak eta lagundutako suizidioak”

OSTEGUNEAN, APIRILAK 29

“Zalantza handiak, benetako arazoak, bizitzaren amaieran erabakiak hartu behar direnean sortzen dira (edo, hain zuzen ere, bizitzarekin amaitzeko). Orduan konturatzeko gara oso erabaki gogorak, zailak eta konplexuak direla; maila pertsonalean, familiarrean, sozialean eta profesionalean; eta oso erantzun emozionalak gogorarazten dituztela, beti ziurgabetasunez inguratuta daudelako”. Koldo Martínez.



Hizlaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Medikuntzan lizentziatua, medikuntza intentsiboan espezialista, 1979tik aurrera Nafarroako Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean egin du lan mediku intensibista gisa. Bioetikako masterra Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Gainera, Lovaina, Konplutentse, Nimega eta Paduako unibertsitateek elkarrekin emandako Bioetikako Europako Masterra lortu zuen lehen mediku espainiarra izan zen.

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

Doako sarrera Edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldeztatik hartu behar dira. Gehienez ere, 2na sarrera.

Gonbidapenak **apirilaren 6tik** aurrera hartu ahal izanen dira aurrez aurre Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea hitzaldia hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin. Saioa behin hasita ezin izanen da sartu.

Liburuaren Eguna



TEA EN LA AZOTEA DELAKOAREN TAILERRAK: "INVENTORES DE LIBROS"

Tea en la azotea Zangozara itzuliko da berriz "INVENTORES DE LIBROS" tailerrarekin.

Roald Dahl-en "Cuentos en verso para niños perversos" liburuan inspiratuta, geure liburua sortuko dugu.

Azala, kontrazala eta bizkarra muntatuko ditugu. Idatzi, ebaki eta itsatsiko dugu, marraztu eta margotuko dugu, eta zergatik ez? Amaiera aldatuko dugu? Ausart zaitzteze liburu asmatzaile handiak izatera!



I. TAILERRA: ASTEARTEAN, APIRILAK 20.

II. TAILERRA: ASTEAZKENEAN, APIRILAK 21.

Familia eta haurrentzat (gehienbat 5 eta 10 urte bitarteko haurrak). Adingabeak helduek lagunduta joan beharra dute.

Iraupena: 120 minutu.

Ordua: 18:00etatik 20:00etara.

Doako sarrera. 12 laguneko edukiera mugatua.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Izen-emateak: **Apirilaren 6tik** aurrera Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera. Tailerra hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuia.



Musika Eskola

Juan Francés de Iribarren



ZANGOZAKO "JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN" MUSIKA-ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUA

APIRILAK 27, ASTEARTEA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Lehiaketak



Ager Vasconum euskarazko IV. 2.0 LITERATURA-LEHIAKETA

Tafalla, Erriberri, Lizarra, Zangoza eta Lodosako Udalek eta Irantzuko Mankomunitateak antolaturiko lehiaketa.

Aurkezteko epea: Apirilaren 30a bitarte.

12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta.

Oinarriak: www.sanguesa.es.
www.sanguesacultura.es.

Argibideak: Tafallako Euskara Zerbitzua.



ALBRETEKO ENRIQUE ZANGOTZARRA XXVI. IKERKUNTZA-LEHIAKETA

Lanak Zangoza eta zangozarrei buruzkoak izan behar dute. Lan-egitasmoen aurkezpena Zangozako Udaletxean egingen da. Aurkezturiko lanak Zangotzarra Aldizkarian argitaratu eman litezke.

Aurkezteko epea: 2021eko ekainaren 30a (barne) baino lehenago.

Oinarriak: Eskatu honako helbidean www.zangotzarra.es.

Antolatzailea: Albreteko Enrique II. Kultura-taldea.

Beste zenbait ekitaldi



OSASUNA FUNDAZIOAREN ASTE SANTUKO FUTBOL CAMPUSA

APIRILAREN 6TIK 9RA

Ordua: 08:45etik 14:00etara.

Lekua: Cantolagua kirolguneetako Futbol zelaian.

Antolatzailea: Osasuna Fundazioa.

Laguntzaileak: Zangozako Udalaren Kirol Patronatua eta Cantolagua Kirol Elkarte-Futbol Saila.